

MONOGRAFIKOA

Telebista Interneten; “Ahalerak eta ahaleginak”



MEMORIA LANA

*Egilea: **Ibon Perez Barcena**

*Kontaktua: perez.ibon@gmail.com

MEMORIA LANA

**Gura dugunean, gura dugun tokian, gura dugun moduan ikusi ahal ditugu edukiak*

Iñako Gurrutxaga,
eitb.com-eko entretenimendu arduraduna

**Ez dute indartsuenek irauten, ondoen egokituta daudenak baizik*

Charles Darwin, **biologoa**

**WEB TV delakoak ikusleen papera eta gaur ezagutzen dugun audientziaren kontzeptua aldatuko ditu. Etorkizun hurbilean telebistako mandoak ez du erabilgarritasunik izango*

Bill Gates, **enpresaria**

** Internet killed the TV star”*

Ruben Sanchez, **ETB3ko Nickdutnik programakoa**

Lan honen izatea

“Telebista Interneten; ahalerak eta ahaleginak” dauka idatzi honek izena, eta *Zure erako telebistaz*, onlinekoaz eta azken finean ikus-entzunezko edukiez gozatzeko aukera ematen diguten modu anitzak azaltzen ditu.

Bi ataletan banatuta dagoen lan- monografikoa da berez. Alderdietako bat teorikoa da, unibertsitatean ikasitakoagatik eta egindako behaketetatik abiatzen dena. Aurreko honen aplikazioa edo gauzatze praktikoa da bestea, EITBn egondako denboran jakin izan nituenekin osatutakoa.

Sare sozialak, streaming bidezko emisioak, amaraunean txertatutako telebista kateak etab. Interneten garapenak eragile komunikatibo berriak sortu ditu. Teknologiak mezuak zabaltzeko tresna berriak garatu ditu, alegia.

Sistema horien agerpenarekin kazetaritzan eta erreportaigintzan joera ezberdin eta berritzaileak agertu dira eta audientzia bera ere baldintzatuta geratu da, gainera.

Gero eta interaktiboagoa den `telebistagintzan, edukiak elkarren artean gurutzatuta doaz (multimedia izaera daukate) eta hauen produkzioa Internetera bideratua dago gehienbat.


Sarea, erabiltzaileek eskegitzen duten bideo eta audioetatik bizi da eta ez du elikadura lineal honek asebetetzen . Panorama horretan, *“Telebista kartara`* izeneko fenomenoak agertu da, egun kateen bereizle ere bihurtu dena.

Goian esan bezala, programazioarena asko aldatzen ari den kontua da, bai, eta telebista ikusteko moduak ere bai. Interneti buruz ari naiz bereziki eta nola gaur eguneko eskaintza eta edukien kontsumoak ez duten sinkronikoak izan beharrik. Askok dira erronkak, eta alderdi teknikitik ez hainbeste baina alderdi programatiko eta promozionaletik desafio berri hauei erantzutea da idatziaren helburua.

Gaiari buruz gutxi edo ia gutxi idatzi den honetan burutu nahi dut ikerketa. Interesgarria da azterketa egiterakoan idatzia baldintzatu dezakeenik ez aurkitzea

Eskuarte inprimatuta edo begien aurrean duzun honek lan praktiko eta bizia izan nahi du. Hemen, telebista kate ezberdinek bideoak nola kudeatzen dituzten jakitea ere izango duzue.

Laburbiltzeko; memoriaren lehenengo partean, telebistak interneten duen presentzia azaltzeaz batera, kate esanguratsu batzuk -TVE, TV3, BBC, Antena3, Tele5..-hartu, eta telebistako edukiak nola antolatzen, kudeatzen eta promozionatzen dituzten ikuskatuko dut. Bigarren partean, berriz, Euskal Irrati Telebistaren kasura aplikatuko dut teoria andana, euskaldunon hedabide publikoa etorkizun hurbilerako prestatua dagoen edo ez jakiteko.



AURKIBIDEA

I. ALDERDI TEORIKOA

Sarrera.....1.ORRIA

- 1. Bideo joerak eta erabilerak interneten 2.orria
- 2. Sareko telebista eskaintza 7.orria
 - 2.1 Aurrekariak
 - 2.2 Telebistak internetera begira jarrita ditu begiak
 - 2.3 Kateen webguneak gaur egunean
 - 2.4 Hemen da etorkizuna

Ondorioak.....24.ORRIA

II. TEORIA, PRAKTIKARA APLIKATUA: EITB.TV

Sarrera.....27.ORRIA


- 1. Bideo aukerak eitbn 24.orria
- 2. EITB.TV 27.orria

Ondorioak..... 39. orria

BIBLIOGRAFIA.....40.orria

I. ATALA: TEORIA

*ONLINEKO
TELEBISTAREN HASI-
MASIAK*



© Komunikaldien V. edizioaren logoa

Sarrera teorikoa

Teknikoki, egungo telebista- aparatuek eta hasierakoek ez daukate batere antzik beraien artean. Antzinakoei sinpletasuna eta erraztasuna eskatzen zitzaaien erabilgarritasunari dagokionez, oraintsu merkaturatu dituztenei berriz, funtzio aniztasuna.

Erabilera edo erabiltzeko modua ez, baina telebista analogikoek eta gaur egungo telebista digitalek betebeharrak komun bat daukate: gauza guztien gaintik, entretenitzea. Hala ere (eta irratia duen boterea ezin itzali dezakeela esaten duenik badago ere), beste hedabide batzuen aurretik, telebista informazioaren paradigma eta iturri nagusia izan da eta izaten ari da askorentzat oraindik orain.

Denboraren poderioz, Estatu Batuetako militarrek Internet izeneko estrategia bat garatu zuten eta mundu-mailako jendearen egunerokotasunean barneratzea lortu du hamarkada gutxiren buruan. Harrezkero, jendearen eskuetan jarri zutenetik, komunikazioa bere eginez, egunkarietako, irratietako eta telebistako edukiak jasotzen ditu Internetek. Horrela, hedabide guztiak batu egin ditu eta internet ikus-entzunezkoen kanal handia bilakatu da.

Hasiera batean, telebistak eskaintzen zuena grabatzen ez bazen (edo eta momentuan ikusten ez bazen behintzat), berreskuratzeko aukerarik izan gabe, galdu egiten zen betirako. Gaur egun, ordea, Interneti esker edukien eskaintza denbora katetik libre geratzen da eta modu horretan segi dezake hainbat egunez sarean, asteetan zehar eta batzuetan, betirako.

Telebista kanalek, beraien aldetik, programazio-taulatik askatzen dute beraien eskaintza eta webguneetan ikusgarri jarriaz, edukiari bigarren erabilera bat ematen diote (bigarren erabilera diot, edukiok berez, etxeko telebistetan ikusteko pentsatuak direlako eta beste plataforma batzuetan emitituak gero).

Digitalizazioarekin asko aldatu da telebistaren eszenatokia. Orain, ikus-entzunezkoak produzitzea, haiekin lan egitea eta haiek kudeatzea gauza zaila da. Audentziarentzako ikustekoak eta entzutezkoak programatzea, ondorioz, ez da emisio lineala eraikitzea bakarrik, webgunean eskaintzen dena antolatzea, sailkatzea etab baizik. Eta hau, irakurleok, kateetako programatzaileek ez ezik kazetariek ere ezagutu egin behar duten kontua da.

Memoria hasierako atal honetan, onlineko telebistaren hastapenei, ekarriko dituen onurei eta desabantailei buruz jakitea izango duzue, baita tresna honek gainditu beharko dituen erronkak zeintzuk diren ere bai. Adibide batzuen bitartez, programazio bertikaletik abiatuta programazio askerako pausua nolakoa izango den jakingo duzue gainera, dena etorkizuneko telebistaren ikus-entzule izateko prestaturik egoteko!

TELEBISTAREN ETORKIZUNARI BURUZKO LAN MONOGRAFIKOA



Youtube-ren efektuak argi utzi du jendeak nahi duena nahi duenean ikusi gura duela.

Telebistak web aplikazioak bere egin ditu, eta Interneten hastapenetan ezinezkotzat jotzen bazen ere, denbora gutxian sarera jausi egin du.

Lasai asko azalduko nituzke 'broadcast TV', 'web TV', 'Push TV' edota 'onlineko telebista' bezalako kontzeptuen esanahiak, baina internet eta honen baliabideak erabiltzen dituzten hedabideak gero eta gehiago direnez, merkatuaren egoera azaltzeko beharrezan aurkitzen naiz.

1. Ikusentuzkoen kontsumoa sarean; bideo joerak eta erabilerak

Eustaten datuen arabera, 2009. urtean Euskadiko biztanleria osoaren %50,5ak nabigatu zuen Internetetik. Portzentajeak hasi egin dira, baina datu hauetatik ezin dugu ondorioztatu, adibidez, erabiltzaileen joerak nolakoak diren, telebista internet bitartez ikusten duten ala ez, sarera zelako edukiak igotzen dituzten etab. Horretarako datu jeneraletara joan behar gara, estatu zifretara.


Ez dugu lan horretan lagundu diezaguken baramotrerorik, eta lortu ditzakegun datu edo informazio apurrak interes jakin batzuei erantzuten die. Are gehiago, "benetako" zenbatespenak zatikatuta daude eta gehienak, zerbitzu partikularrak eskaintzen dituzten zerbitzarien eskuetan izkutatuta daude.

Momentuz, suposizioekin baino ezin dugu lan egin eta aldibateko inkestez baino ezin gara fidatu. Hala ere, kotsumitzaileen artean burututako itaunketek eta merkatuko Internet eskaintzak- banda zabalera da nagusi-, pista batzuk eman diezazkiguke. Azkenaldian, gainera, ordenagailuetan telebista ikusteko bideo konpresoreak agertu dira eta honegatik, ikus-entzunezkoen trafikoa handitu egin dela susmatu dezakegu.

1. TAULA

"Ikus-entzunezkoen banda zabalera etxeetan", 2004- 2009. urteetan

(estatuko datuak)



Goiko taula horrek, aldaera desberdinetan, ADSLak Espainian daukan presentzia adierazten du


Ikus-entzunezkoak kalitateaz eta etenaldi teknikorik gabe ikusteko, sarean konexio on bat izatea gomendatzen dute jakitunek. Eta krisi garaian egonda ere, ikusi denez, banda zabalera da etxeen gehiengoetan nagusi.

Nabigatzaileek, gero eta abiadura handiagoa duen konexioa izanda, edonondik eta edonola, nolana eta nahi dutenean ikusi ditzakete edukiak, bilaketa adimentsu eta azkarrak egin ditzakete, komunitatean kontsumitu ...

Ikus-entzunen barriaketa benetan handia da, bai, eta, joerei erreparatu behar diegu. Beste batzen atean, honakoak dira bideoei ematen diegun erabileratoko batzuk:

- **Bideo eta pelikulen jeitsiera/ deskargak.** Espainiako Industria Ministeritzak plazaratutako datuen arabera, hauxe da Interneten gehien egiten dena (gero, normal Sinderen legea bezalakoak egotea!). 2008. urte amaieran, adibidez, erabiltzaileen % 42ak bideoak eta pelikulak ohiz jaisten zituztela onartzen zuten [ONTSI, 2009. urtea].

- **Bideoen igoera.** Igo baino gehiago jeitsi egiten dira. Eta bideoak igotzeko gestore ezagunenak zeintzuk diren? “Youtube” eta “Google videos”. Lehenengoaren kasuan, adibidez, 40 bideo ordu igotzen dira minuturo, 150 bat bideo egunero Espainian.



Bideoak youtuberatzeko prozesua

Normalean, gutxi batzuk izaten dira ordu bete baino gehiago irauten duten bideoak eskegitzen dituztenak. Eduki luzeak igotzeko ordenagailu indartsuen erabilera egin behar da.

“ **berria.info** | Papereko edizioa

2011-06-01

ZIBERGELA

YouTubek 6 urte bete ditu, sekulako zenbakiekin

J. A. S.

YouTubek 6 urte bete ditu dagoeneko, eta, oso plataforma ezaguna eta erabilia dela jakin arren, YouTubek bere urteurrenean eskaini zituen kopuruak harrigarriak dira.

Lehenengo kopuru harrigarria erabiltzaileek igotzen dituzten bideoen denbora da. Dagoeneko ez da ordutan neurtzen, egunetan baizik. Izan ere, minutu bakoitzean YouTubeko erabiltzaile guztien artean bideo bi egun igotzen dituzte. Hau da, erabiltzaile batek hamar egunetan igotako bideo guztiak ikusteko bere bizitza osoa beharko luke, lo egin gabe eta atsedetik gabe.

Beste kopuru harrigarri bat bisita kopurua da, hain zuzen ere, eguneko YouTubek 3.000 milioi bisita ditu.

Datuok hobetzeko gauzak dituzten arren, munduko webgunerik garrantzitsuenetakoa da, ez dago zalantzarik. Agian, orain hobetzeko gelditzen zaiona film eta telesailen merkaturia izan daiteke. Eremu horretan, Netflix (<https://www.netflix.com/>) askoz aurreratuago dago.

”

Youtube ikus-entzunezkoen kontsumoaren gailurrean aurkitzen da


- **Telebista sarean ikustea**

Euskadin zaila da telebista internetetik ikusten dutenen zifra bat plazaratzea. Katalunian, aldiz, ez da berdina gertatzen, onlineko telebistari dagokionez alde handia baigaramatzate (ez gara harritu behar, bertako hedabide nagusia den TV3 izan da estatuan aitzindari eta). Horixe ondorioztatzen du, behinik behin,

Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, CAC delakoak, 2009. urtean audientziariari buruz aurrera eroandako ikerketa batean: ea telebista internetetik ikusten zuten edo ez galdetzean % 11 batek baietz erantzun zuen. 18-34 urte bitarteko kasuan, ostera, % 20ak jarraitzen zuten saretik telebista.



Sareko telesaila jeitsiena izan da 'Heroes', baina telebistan audientzia gutxi izan duenez, NBC kateak ezeztatu egin du



Estatu Batuarrek Katalanuniakoak eta inor baino aurreratuago dabilta (onlineko lehenengo telebista katea NBC hedabide amerikarra izan zela gogoratu behar dugu). Han, Interneteko audientzia handia da eta interesgarria da bertatik datorkigun datua: *Heroes* eta *Lost* artxiiboak partekatzeko zerbitzarietatik gehien eskuratu diren telesailak dira (telebista tradizionalerako audientziak baino handiagoak dira interneteko telebistetakoak), *House* eta *Desperate Housewives*, aldiz, AEBetako telebistan arrakasta gehien izan dutenak dira.

<< Estatu Batuetan, Internet bidezko deskargak eta telebistako audientziak ez datoz bat >>

Baina Estatu Batuetatik ez zaizkigu datuak bakarrik heltzen. Handik iristen diren kritikak ere entzun egin behar ditugu. EEUUko gobernuarentzat Espainia da internet bitartez telebista eta zine- edukiak gehien kontsumitzen dituen estatua (modu ilegalean, noski). Hau ekiditeko, Zapatero presidentearen gobernuak seriesyonkis.com eta cinetube.es bezalako orrialdeak zarratuko ditu 2011ko urritik aurrera, telebista kateen jabetza intelektualaren mesedetan (horrela, kateen produkzioak beraien WebTVetatik bakarrik ikusi ahaliko dira).

elcorreo.com

INFORME DEL CONGRESO

EE UU coloca a España entre los países con más 'piratas'

Los congresistas consideran que las redes de intercambio p2p "operan con total impunidad"

02.06.11 - 22:10 - EUROPA PRESS | MADRID

0 Comentarios | [Twitter](#) 1 [Compartir](#) [Recomendar](#)

El Caucus Antipiratería Internacional del Congreso de Estados Unidos ha señalado a España como uno de los cinco países del mundo en los que se cometen más infracciones contra la propiedad intelectual. Se trata de un comité de setenta senadores y miembros de la Cámara de Representantes que analiza los problemas con las descargas ilegales de música y películas en los cinco continentes.

Los congresistas admiten que España "está dando pasos legislativos en la dirección correcta", pero entienden que las redes de intercambio p2p "operan con total impunidad". Según el diagnóstico del Caucus norteamericano sobre la propiedad intelectual en el mundo, España es uno de los países "con problemas de mayor alcance y profundidad en materia de piratería", un demérito que comparte con Canadá, China, Rusia y Ucrania".

Por todo ello, urge al Gobierno español a "comprometerse a luchar contra todas las formas de piratería en línea", para lo que propone identificar a los usuarios más habituales del p2p, luchar contra las páginas que ofrecen enlaces a contenidos ilegales, modificar la legislación para que los titulares de los derechos puedan emprender acciones civiles contra aquellos internautas más reincidentes, y aclarar que el derecho de copia privada no es aplicable cuando las canciones o películas se obtienen de manera ilegal.

Estatu Batuek atenzioa deitu diote Espainiako estatuari. Azken honek jabetza eskubibidea urratzen duela zalatzen du lehenengoak.

- **Datuen kontsumo intentsitatea**

Onlineko telebistaren kontsumoa ez, baina webguneetan bideoak behatzera sartzen diren pertsonak aztertu zituen PWC kontsultategiak. Emaitzak, benetan harrigarriak: sareko trafiko osoaren erdia, bideoen kanaletara sartzen diren eta hauek konpartitzen dituzten erabiltzaileen % 5ak suposatzen du.

Zentzu honetan, pirateriaren auzia aipatu behar dugu. Espainiako Gobernuak, jaitsieren bolumenak ikusita, deskargak eta zinean dauden pelikuleak ikusteko aukera guztiak debekatu nahi ditu.

Sarean ikasiak direnek, ordea, malgutasuna eta gaztiguen leuntasuna eskatzen dute (Eladio Gutierrez Montesek, esaterako, ordainketa edo isunak, tarifen araberakoak barik, jaitsieren araberakoak izan daitezela proposatzen du).

Gero eta filme gehiago ikus daitezke sarean online. Hori ilegala da, baina, Hollywood bide legala aztertzen ari da (publizitatearekin batera, filmeak jarriko lituzke sarean ikusgai).



Series Yonkis



- **Telebista interneten edo etxeko egongelako aparailuan?**

Ez gaude modernismoetara ohituta eta egia esateko, telebista ikusterakoan jendeak nahiago du betikoa, urteetan txoko batean geldi-geldi egon dena. Dena dela, gero eta arreta gutxiago jartzen diogu telebista tradizionalari, distrakzioak ere gero eta handiago direlako. Urrutira joan gabe, Espainiako internet erabiltzaileen heren batek -24 urte baino gutxiago dituztenak gehienak-, nabigatzearen ondorioz telebista gutxiago ikusten duela onartzen du.

AIMC ikerketa klasikoan bistaratzen denez, halaber, nabigatzaileen gehiengoak dohaineko edukiak ditu gogokoen.



Sareko telesaila jeitsiena izan da 'Heroes', baina telebistan audientzia gutxi izan duenez, NBC kateak ezeztatu egin du

Trukaketa edo P2P teknologiak ´onlineko telebista` sortu du. Gure etxeetan ditugun telebista tradizionalak, ostera, edukia grabatu, birbobinatu edota momentuan erakutsiko dezaketen aparailu xumeak baino ez dira.

Nolakoak izango dira, baina, telebista internetetik ikusteko sistema berria hauek? Zer nolako edukiak eskainiko dizkigute? eta telebista tradizionalarekin, zer gertatuko da gaur arte izan dugun telebistarekin?

2. Sareko telebista eskaintza

Denbora laburrean, programazio linealetik programazio askera igaro gara. Nahi duguna, nahi dugun moduan eta nahi dugunean ikusi dezakegu. Betiko telebista aurrean izan gabe, ordenagailuetan produkzio txikiak zein handiak erraz asko jaso ditzakegu.

Banda zabalerak gero eta abiadura handiagoa zuela ikusita, triple-play moduko zerbitzuen agerpenarekin, [Screen Digest](#) webgunekoak iragarpen bat egiten ausartu ziren 2006. urtean. Hauen arabera, hiru urte geroago 9 milioi europar izango ziren telebista internetetik ikusiko zutenak, baina 2009. urtean, datuak ez ziren esperotakoak izan.



La Sexta-ko aholkulari ordea den Jose Miguel Contreras, Telebista Digitalak kateen arteko elkarlehia ekarri duela uste du.

Haren iritziz, pieza txikiak dira azken finean betiko telebistaren audientzia igo dezaketen bakarrak. Bere ustez, eduki haue beste eduki luzeago baten asebetetze edo gogobetezle izan behar dira, publizitatea egiteko modu bat.

Argazkia: La Sexta

Sareko edukien eskaintza txikia bazen ere, biderkatu egin da urte batean, eta hemendik aurrera, ohitura berriek audientziaren zatiketa (edukiak bereizi doaz eta horren ondorioz targeta ezberdina da) ekarriko dutela uste da.

Telebista tradizionaletan erreferentzia diren edukiak Internetera igotzen ditugunez, saio hauek pisua eta audientzia galtzen dute (telesailak programak baino gehiago egia esan). Eduki luze horiek webguneetan eskegitakoan, independentzia aitortzen diegu eta kateekin daukaten erlazioa apurtu egiten denez hedabidearen irudia ahuldu egiten da.

Pertsonalki, ez dut pentsatzen ezagutzen dugun telebista, profesionala, desagertu egingo denik. *Leloen kutxa* deitu izan zaio betidanik, baina herritarrak erabiltzaile aktibo eta eduki-sortzaile bihurtzen hasi direnetik, topiko horri amaiera emango zaio seguru.

Garapenak ez dirudi etenik izango duenik. Jakitunak etxeetako telebistetatik nabigatzearen bidegarritasuna eztabaidatzen diharduten bitartean, NOKIA eta APPLE enpresak berriz, telebista txertatuta izango duten produktuen diseinua bukatzen ari dira eta egia esan, zenbait hedabidek belarriak zorroztu egin dituzte hau entzutean ...



Shakiraren zuzeneko kontzertua mugikorrean
Argazkia: Nokia

Era guztietakoa edukiak ikusi ahalko ditugu mugikorrean. Besteak beste, zuzenean ematen diren ekitaldiak (telebista konbentzionaletan ikusten diren modu berean) edo mugikorrenzat berariaz diseinatutakoak Izango ditugu aukeran.



Informazioa emateko eta partaidetza sustatzeko kate txikiak sortu dituzte alderdiek. EAJ-ek adibidez, BAT telebista abiatu du, 30 Batzoki ingurutan eta Internet bidez ikusi ahal izango da telebista katea.

Argazkia: EAJ- PNV



■ Aurrekariak

Telebista eta internet, interneteko telebista edota telebistako internet. Gauza berria da eta definizio ofizial baten faltan, edonola eta edozelan deitu ahal diogu.

Antzinean, kable bitartez (kable bidezko telebista), satelitez edota lurreko sistemiei esker ikus zitekeen bakarrik telebista.

Jendeak momentuko emisioak jarraitzen ez bazituen behintzat, galdu egiten ziren. Interneten hastapenetan, testuak ziren sarean nagusi, baina denborarekin emisio horiek piezetan zatituta jarri zituzten, bideo txikietan. Bideo horiek "Video on Demand"

sistemari esker ikus zitezkeen, web orrialdeetan edo programa desberdinetan kokatutako zerbitzariari esker hain zuzen.

2005-2006. urteetan bideogune handi batzuk agertu ziren. Web 2.0 filosofia gauzatzea zen haien filosofia. Hori eta erraztasuna.

Youtube bihurtu zen lehen mailako errepositorio nagusi. Bere zerbitzarian eskaintzen ostaturatua zuen eta partnerrak ziren bideoen jabeak. Bigarren mailako bideoguneak, ostera, beste sistema batzuk erabiltzen zituzten eta eskegitako bideoak zerbitzu subsidiarioen menpe kokatzen zituzten.

Edukien aldetik, Interneteko bideo pilulen garrantziaz konturatu ziren telebista arruntak eta baita nabigatzaile gehienak ere. Harrezkero, gehienez 4-5 minutu dituzten bideo txikiak igotzen hasi ziren sarera. Egun, ostera, telesail edo film osoak jartzeak ere zentzua dauka, baina hau kate handiek egiten dute.

Normala denez, AEBetako enpresa handiek hasi zuten dena. Hona hemen, hurrengo orrialdean, onlineko bideoak eskaintzen hasi ziren konpainien popularitate indizeak (joan den urteko datuak dira):

2. TAULA

Webgunea	Jende nagusia	Gazteak, 18-24 urte
YouTube	%57	%99
Telebista kateak (adibidez, ABC.com)	%55	%47
Informazio webguneak (adibidez, CNN.com)	%47	%36
Yahoo	%34	%41
Google	%32	%51
MySpace	%26	%61
iTunes	%9	%22
Eta beste	%26	%26

(*) Gorka Palazio irakasleak moldatutako taula

Iturria: http://www.swivel.com/data_sets/spreadsheet/1003361

Gaur egun Interneteko konexioen abiadura handitu da eta honekin, gure esku dauden ahalbideen aukerak baita. Gero eta nabigatzaile gehiago daude gure artean, eta nabigazioa merkeagoa denez, telebistako eduki askea, legalki, Interneten aurkitu dezakegu. Gainera, kable edo satelitetik emitituak izan ez diren telebista edukiak agertu dira sarean (Telecinco-ren *becarios* telesaila esaterako).

2007. urtetik aurrera, Googelen Blogger sistemak klik batera utzi zuen bideoak bitakorara zuzenean igotzeko aukera, eta hauen agerpenarekin, herritarren kazetaritzari eman zitzaion bide.

IP sarearen bitartez, bideoa transmititzeko modu ugari daude eta izen asko jarri dira modan. Gorka Palaziok zuzendutako kazetaritza 2.0 ikastarloan, adibidez, onlineko telebista, streaming (livestream.com) bidez dabilena, vlog-ak (Joxi Sierraren [udaberrigaldua](#) ekimena eta Gorka Palazioren [Ikastube](#) adibidez), eta WEBTV kanalak ezagutu ditugu.

Interneteko telebista, sarean emititzen den telebista inmateriala dela ulertu behar dugu. Seinalea hornitzaileak berak dauka, telebista kateak, baina azken transmisioa, edozer egin dezake eta, nabigatzailearena da.

Internet eta telebista, egun, berezita doazen bi plataforma. Geroago baino lehen, bat eginda joango dira; dagoeneko bien arteko mugak lausotuz doaz. Bere bidea sarean aspaldi hasi zuen telebistak baina oraindik ere igarle lanetan dihardute adituek, eredu eta etekinerako modu garbi baten esperoan. Aurretik ezin aurreikusi den etorkizuna du, oraina berriz, bi euskarriren batuketa.

▪ **Telebistak internetera begira jarrita ditu begiak**

Populazioaren parte bat bakarrik ikertu da-34 urte bitartekoek osatutako merkatua- eta lehen esan bezala, oraindik orain ez dago Ikus-entzunezkoen erabilerari buruzko ikerketa zehatzik. Hala ere, eta ditugun datu apurrekin, zera baieztatu dezakegu: kateen eskaintza interesgarria ikusita, datozen urteetan edukien kontsumoa adierazgarria eta gorakorra izango dela.

2005. urtean, Youtube arrakastatsua indarra ikusita, komunikazioaren alorreko enpresa askok eta askok beraien tokia bilatu zuten atari honetan. Ia- ia sasoi berean, telefono eta mugikorren konpainiek, Telefonica eta Euskaltelek kasu, ordainbidezko telebisten eskaintzak instalatu zituzten beraien sareetan.



Irekiko telebista-operadore asko izan ziren Youtuben kontua zabaldu zutenak

Youtubek, bideo jario eta trafikoko izugarria eskaintzen zien konpainia hauei eta egia esateko, abantailak ez ziren batere eskasak. Ez zen zaila atarian nabigatzea eta ondorioz, bideoak bilatzea. Erabiltzaileek, kateen ikus-entzunezkoak ikusteko, ez zuten hedabideen webguneetan zertan sartu beharrik.



BBC izan zen Europan eduki propioak plataforma honetara igotzen lehena eta ondoren, Antena3 telebistak jarraitu zituen bere pausoak. Gainerako enpresek, azken hiru- lau urteetan sartu izan dira bideo digitalen web obrrialdea horretan (EITB berandu ibili da, 2008. urtearen azken txanpan ireki zuen Youtubeko kanala eta).

Hala ere, 2009. urtetik hona, hedabideek beraien estrategiak aldatu dituzte.

Hasiera batean langile gutxi ziren digitaletan lan egiten zutenak, baina webguneen garapena ikusita, profesional ugari kontratatu dituzte (eitb.com-en, esaterako, 80 bat inguru dira langileak, Telecincoren web orriari, berriz, 120). Tele5eko langileek hain justu, interes pribatuen alde, edukiak zuzenean kudeatzeko bideari ekin diote eta enpresako programak Youtuben ikusiz gero, salaketak jartzen dituzte noiznahi.

Momentu honetan, Interneten kolonizazioan eta sare sozialen ustiaketan zentratuta daude operadoreen ahalegin guztiak. Hedabideak, halaber, (eta aurrerago aipatu dizuedan bezalaxe) multimedia lana multiplafoma bilakatu nahi dute, nola eta LTDa, sareko konexioa eta mugikorrek batera uztartuta [Antena3k, adibidez, 3.0 ekimena jarri du martxan].

Egia da bai sareak telebistako edukietatik edaten duela, baina telebista ere ez da labur gelditzen interneteko irudien erabilerari dagokionez; urriaren 29an urrunago joan gabe, Lurreko Telebista Digitalaren dohainikako 19 kateek, egunean bi orduz, sareko edukiak erakusten zituzten (hauen % 21ak Youtube-ren seilua zeraman).



ETB2ko igandeko Teleberrian astean eitb.com-en ikusienak izan diren bideoak erakusten dituzte

La Sextako 'Sé lo que hicisteis' programan sareko bideo barregariak jartzen dituzte

Bigarren argazkian, Youtuben gehien agertzen den telebista-programa

Gaurkotasunari buruzko esparruek eta magazin gehienek ikus-entzunezko baliabideak eskaintzen dizkigute. Bideoak erakusteko joera honek 90. hamarkadako "Videos de

primera” bezalako saioak gogorarazten dizkigu, programa horietan erabiltzaileek igorritako bideoak erakusten ziren eta.

Sarea telebista edukien hartzaile eta hornitzaile bihurtu da.

Interneteko produktu bilakatu diren ikus-entzunezkoen erabilera edo emisioa faktore askok baldintzatuta egon daiteke:

❖ Kontsumoaren pertsonalizazioa

Jendeak ikusi nahi duena aukeratzen du (katea, saio mota..) eta zerbait amaitu gabe uzten baldin badu, ikusteke uzten badu, beste batean berreskuratu dezake.

❖ Negoziatzeko modua

Operadoreek web orrialdeetako publizitateari esker lortzen dituzten diru-sarrerak aztertzen ez baditugu behintzat, ez dugu telebistako ikus-entzunezkoekin irabaziko duguna norainokoa izango den jakingo.

Hedabideek, telebistan emititutakoak birziklatuta, mozkinak jaso nahi dituzte, baina merkaturak garatu gabe dago oraindik eta kateak ezin dira euren artean lehiatu. Gainera, kontsumo ohiturek erakusten dutenez, jendea hedabide jakin batzuetan sartzen da eta bertako edukiak ez dituzte beste hedabide batzuetakoekin alderatzen. Musika eta prentsa webguneen kasuan, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen [orrialde asko daude amaraunean eta diru-truke, iTunes bezalako zerbitzuak daude].

Horrela bada, interneteko telebista eskaintzak hoberantz egingo duen esperoan, hedabideek beraien webguneetako atalak hobetzen dihardute (kanpoan dirurik ezin lortu bada, atariko eduki batzuk beste batzuk baino bikainagoak eginez lortzea egongo da).



 **EUSKARAZ.TV**

Euskaraz.TV izan zen Internetetik espezifikoki emititzen hasi zen lehenengo telebista (2004. urtean). Euskarazko ikus-entzunezkoen erreferentzia izateagatik, jarritako publizitateari esker finantziatzea lortu zuen

❖ Audentziaren neurketa

Internet bidezko telebista eskaintzen ustiapenerako funtsezkoa den baldintza da hau.

Oraingoz, erregularizatu egin behar da interneteko audientzia kalkulatzeko modua (telebista internetera eramateko saiakerak esperimentalak direnez, ikus-entzuleen azterketak ere probisionalak dira).

Praktikoki, orain gutxi hasi dira hedabideak sarera ikus-entzunezkoak igotzen. Egun, datuak kateen eskuetan daude eta interneten txertatutako edukien kontsumoa pribatua da. Ene iritziz, pribatizatzeko honek ez die komunikabideen interesei baino kalte egiten, erabiltzaileei buruzko informaziorik ez izatean publizitei, negoziatzean, atzerantz bota ahal die eta.

Audientziaren adierazle bakar, 2009. urte amaieran burututako Hedabideen Ikerketa Orokorraren azterketa zirriborotsua daukagu. Honen arabera, 1,5 milioi dira hilean estatuko kate pribatuen web orrialdeetako edukiez gozatzen dutenak eta ia miloi bat, berriz, edukiok RTVEren atarian ikusten dituztenak.

❖ Interneteko telebista emisioaren kostuak

Difusio konbentzionalen kasuan, emisioaren kostua independentea zen eta ez zegoen lortutako audientziarekin erlazionatuta. Ikus-entzunezkoen interneteko transmisioaren balioa, bere aldetik, online zerbitzarietan – Telefonica eta Akamai, kasu- sortutako trafikoaren bolumenaren arabera da.

Interneteko emisioen kostuak txikiak dira benetan, eta sarearen abiaduraren ugalketak edota datu- berriek, gero eta merkeago egingo dute.

Seinalea hedaraziko duen aparatuak ona izan beharko du, halabeharrez. Transmisioa ikusten audientzia handia baldin bada eta erretornuak nahikotxo ez badira pikutara joan daiteke gure lana.



BBCren i-Player erreproduktoreak (ezkerreko irudian) sarrera mugatua dauka.

Jende askok erabiltzen du eta zerbitzaria blokeatu egin da hainbatetan.

BBC iPlayer

BBC iPlayer

❖ Erabiltzaileentzako apustu berriak egin behar dira

Inbertsiorik onena, kalitadedun produktu bat sortzea eta gure lanarekin gustura dagoen audientzia fidel bat erakartzea izango litzateke. Horixe da, behintzat, hedabide ooren nahia.

Antena3ko Francisco Sierrak esaten digunez, 'Onlineko telebista' arrakastatsu bat izateko, bederen, erabiltzaileei interaktibitatea, edukiak aukeratzeko autonomia eta sare sozialen bitartez besteekin erlazionatzeko aukera eskaini behar diegu (gogoratu dezagun gazteak direla nagusiki Interneten aritzen direnak). Erabiltzaile horiek, beste batzuek produzitutakoa ikusten dute orain, baina biharko egunean beraien esku egongo da produkzio berriak sortzeko eta ikus-entzunezkoen kultura duin bat izateko ardura.

Telecincoren
Webgunera sartzen
direnek emisioak
aldez aurretik ikusi
ditzakete, dirutruk
noski.

 **TELECINCO.ES**
'Aída', a la carta



Puedes ver los **capítulos emitidos** en alta calidad (1,06 €) o en calidad estándar (gratis).

Además, te ofrecemos el **preestreno** del próximo capítulo en alta calidad (1,42 €).

▪ **Kateen webguneak gaur egunean**

Une honetan, telebista operadoreak bezainbeste webgune daude sarean. Hedabide bakoitzak bere baliokide digitala dauka eta ikus-entzunezkoak aurkezteko moduagatik, honelaxe sailkatu ditzakegu:

➤ **Emisio lineala dutenak**

Etenik barik, edukiak jarraitasunez ikusteko aukera eskaintzen diguten websiteak dira.

Telebista konbentzionalari dagokionez, Vía Digitalek erabili zuen lehenengoz (1997. urteari buruz ari natzaizue) eta haren filosofia pantaila aniztasuna eta interaktibotasuna izanik, Internetera heldu eta WebTV itxura hartu zuen.

Talde honetan, Antena3k kanpotarrentzako online jarrita daukan telebista, Neox eta Nova kate berriak eta 'A3N 24 horas' beteranoa nabarmendu behar ditugu. Ikus-entzunezkoak kudeatzeko modalitate honi dagokio, baita RTVEren '24 horas' albistegia.

Kate autonomikoek, beraien aldetik, kanpo seinalea (sat-a) igortzen dute -norbere produkzioa eta muga territorialak zeharkatzeko onartuta dauden edukiak- eta baita irrati publikoak ere.

➤ **Kirol ekitaldiak edo antzerakoak 'simulcast' sistemari esker**

Hedabide handiek erabili dute jada eta kalitate onena eskaintzen duen emisio mota da. Sare sozialak txertatuta izaten ditu normalean eta Roberto Loret-ek esaten duenez, txat bat eramaten dute (erabiltzaileen artean kirol emanaldiei buruz eztabaidatzeko aukera bikaina, ez?).

Honen bitartez TVEk, 2008ko Pekingo Olinpiadak emititu ditu besteak beste, La Sexta kateak 1 Formula eta Tele5ek, 'Konfederazioen Kopa'.



2010eko Munduko Futbol Txapelketa online jarri zuen Tele5ek, baina emanaldien kalitatea zalantzan ipinia izan zen askotan.

Momenturik ikusiena, nola ez, Casillas eta Sara Carbonero besarkatu zirenekoa.

ARGAZKIA: Tele5

➤ **Barne edo kanpo produkzio kapituluaren errepikapena**

Telebistan transmisio originala emititu bezain pronto, webgunean ikusi dezakegu. Horrela, ikus-entzunezkoen gozatzeko aukera gehiago daukagu eta baita, eduki hauek gure nahietara egokitzeko ere bai.

Kateek, saio batzuek izaten dituzten emaitza kaxkarrak ikusita, programazio parrila aldakorrak prestatzen dituzte eta erretiratutakoak behin betiko desagerrarazi beharrean, digitaletan eskegitzen dituzte (Ana Obregonen *Ellas y el sexo debil* telesailak ez zuen arrakastarik izan, adibidez, eta Antena3k web orrian emititu zuen).

ADIBIDEAK 2



Tele5ek noizean behin emititzen dituen *Tele movie*-ak izugarritzko audientzia izaten dute (Alakranaren bahiketari buruzkoak ez du arrakasta askorik izan).

Espainiako sozietateko eta kulturako pertsonaia esanguratsuen bizien errepresentazioak izaten dira (Paquirri-ren bizitza, Lola Floresena...)

eta baita gertakari lazgarrien errepresentazioak ere (Spanair-en istripua).

Bi kapitulu izaten dituzte gehienetan eta osorik edo minutu bateko piezetan aurkitu ditzakegu.



TELECINCO.ES PROGRAMAS SERIES DIRECTO HITEL GENTES BLOGS TELEMANÍA INFORMATIVOS SERVICIOS DIVINITY

JUSTIN BIEBER: Mira al cantante haciendo un cameo en C.S.I. Las Vegas

Vuelve a ver el primer capítulo de 'Alfonso, el príncipe maldito' y adelántate al próximo episodio

Sus deseos de reinar España, la frustración ante Carlos I como sucesor al trono y su matrimonio con Juana la Loca, claves del primer episodio de la miniserie. Vuelve a ver íntegro el primer capítulo de la miniserie y adelántate al desenlace con el avance.

- VUELVE A VER EL PRIMER CAPÍTULO DE LA MINISERIE
- Adelántate al segundo episodio con el avance
- Los mejores momentos del primer capítulo
- Así se hizo 'Alfonso, el príncipe maldito' (MAKING OF)
- La serie sobre Alfonso de Borbón, en fotos
- Conoce a los actores de la serie
- La vida de un príncipe que no reinó
- TODO SOBRE LA MINISERIE

TV MOVIES

Telebistan ikusitako edukia eskaintzeaz gainera, Tele5eko programatzaileek hurrengo kapituluaren aurrerapen bat jartzen dute sarean

Argi dago, “Alfonso, el príncipe maldito” bezalako produkzioak ikustera sartzen direnak honelako istorioen jarriztaile sutsuak izaten direla. Produkzioak bi aldiz errepikatzen ditu Teletcinco telebistan eta jendeak badu haiek konektatu gabe ikusteko aukera. Interneten, baina, argazki galeriak, making off-ak etab aurkitu ditzakete nabigatzaileek.



Cuatro-ren PlayCuatron, kanpo produkzioak dira nagusi

AHORA EN DIRECTO > 21:47 Relájate en el chat mientras ves a Fernando Alonso en El Hormiguero

Estreno: martes 14 a las 22h30

Los pilares de la Tierra también en play cuatro

ver vídeo

Podrás disfrutar del estreno también en play cuatro, y volver a verlo tras la emisión las veces que quieras, íntegro en la web! ¿Todavía no te has gorgolizado?

LOS PILARES DE LA TIERRA KEN FOLLETT

Astearte gauetan, 'Los Pílares de la tierra' emititzen du Cuatrok. Zortzi kapitulo dauzka telesailak eta atal bakoitza 15 egunez jartzen dute webgunean. Harrera ona izan du webgunean eta baita telebistan (5 milioi pertsonak jarraitu zuten lehenengo kapitulua).

Oraintsu, 'Perdidos' telesaila emititu zuen Cuatrok bere WebTVtik. Zentzu honetan, Europako ikus-entzunezkoen artetik berriztatzaileena izan da katea.

Aurki, Cuatro (PRISA) eta TELECINCO (Gestevisión) Mediasat taldean integratu dira. Adituen arabera, lehenengoaren arduradunek

Ordainketen beharrik izan gabe, Estatu Batuetan estreinatu eta aste betera, mundu mailako arrakasta daukaten telesailak ikusi ditzakegu gurean.



➤ Programen katalogo historikoa

BBC katearen iPlayer-a eredutzat hartuta, Kataluniako Telebista izan da digitalizatutako edukiak sarean irekitzen lehena: doakoa den '3alacarta' zerbitzuaren bitartez egin du. 2008an, 70.000 emisio zeuzkan biltegiatuta, astero 500 bideo gehitzen zituen eta hilean 2,5 milioi ziren deskargak.

Estatuko kateen artean, Antena3, Tele5 eta TVE1ekoak dira erakustegi onenak. Horien atzetik La Sexta, Cuatro eta hedabide autonomikoen kanalak doaz. Lehengoek eta bigarrenak, haien ikus-entzunezkoen historiaren depositua osatu

aldera ari dira lanean. Canal Plusek ere, Plustv espazioa zabaldu eta bere produkzioak bertan jartzen ditu.

➤ Segmentuak, laburpenak eta highlights-ak

Programaka edota gaika multzokatuta doaz eta zappingak gogorarazten dizkigute. Buletin meteorologikoak, partidu batetako golik eta onenak, pertsonaia famatuek magazineta esandakoak etab biltzen dituzte.

Ordenagailuen edota mugikorren bitartez, erabiltzaileak, aukeratzen dituzten segmentuen ´podcast`-etara harpidetu daitezke.



Interneteko ikus-entzunezkoak erreproduzitu aurretik iragarki bat izaten dute.

Pasadan urtean, Euskatelen “estoy online” (ezkerraldean) zeramaten eta aurten berriz, Schuss edariaren iragarkia (eskuman) daramate.




➤ Sarerako sortutako edukiak

Mugikorrentzako eginiko edukiak (politonoak gogoratu ditzagun) ez ezik, webguneetarako edukiak sortzen dituzte telebista- kateek.

Tamaina eta iraupen mugatua duten narrazio linealak dira eta ikusleek erabakitzen dute istorioen narrazioa. Argiztapena zaindua dute, gainera, eta aurkezten dituzten planoak zarratuak izaten dira.

Filosofia honi esker, 2008. urtean ´Becari@s` eta ´Sexo en Chueca` bazelako fikzioak atera zituen Tele5ek eta Antena3k berriz, “Dirigeme” edo “Desalmados”.



iragarkienak

Internet-en baino aurkitu ezin dezakegun edukiak eskaintzen dizkigute <http://www.telecinco.es/granhermano/> orrialdekoek (ezkutuko kamerek grabatutako irudiak etab).

➤ Promozioak, trailerrak eta telebista

Katearen irudia indartu dezakete eta operadore nahiz ordainbidezko kateen webguneetan kokatuta joaten dira.

Hedabideei publizitatea egiten diete eta gutxitan bada ere, dokumentalak, pelikulak, telesailak eta bideoklipak jartzen dituzte jendearen eskura.

➤ Eduki informatiboak

Hedabideen atarietan sartuta, informazioa promozioarekin nahastatuta aurkituko dugu lehenengo begi-bistan. Webgunearen orrialde nagusia, katearen aurkezpen xumea besterik ez da eta albisteen sekzioa aparteko orrialde batean doa.

Informatiboen atal honetan, testua eta bideo piezak dira nagusi. Orain, notiziak sinplifikatu egiten dituzte eta irudiek hauengandik hitz egin dezatela espero da.

RTVE, Cuatro eta CNN+ kateek, beraien albistegien laburpena egiten dute eta garatutako informazioei buruz gehiago jakiteko baliabideak ematen dizkigute.



TAULA ARGIGARRIA

Matinal
en directo



Informativos 15h
en directo



Informativos 21h
en directo



Fin de semana
en directo



5
TELECINCO


Informatiboaren edizioa aukeratzeko

Mementuan emisioan dagoena (telebistatik hartutako seinalea)

➤ Umeentzako edukiak

Dudarik gabe, esplotatu gabeko edukiak dira hauek (ez da harritzekoa, haurrak interneteko audientzietatik kanpo uzten dituzte eta)

Estatuko beste hedabideek ez bezala, TVEk irudi desberdingarri bat sortu du: Clan TVE, multimedia eta parte-hartzea sustatzen dituen orrialdea.



TVEko *Clan TV*ren aldean, *Betizuren* webguneak “deskuidatua” dirudi

➤ Edukiak diru-truke

Kate tematikoek bideoekin komertzializatu nahi dute sarean eta horretarako, eredu berriak ekarri dituzte kanpotik.

Digital+ frantsesak, adibidez, Plus.es webgunean zezenketak jarri ditu, diferituta eskuragarri. Teuve-ren Cinematik eta Cinestar zine kateek, aldiz, SMS baten bitartez ordaintzen diren filmak dituzte alokairuan eta bideo pornografikoen kontsumoarekin ere antzeko zerbait egiten du Canal18k.

SMS bidezko ordainketa hori hautatu dute, halaber, Real Madrid Telebistak eta Paramunt Comedyykoek. Dirua egiteko, futbolarien golen laburpenak saltzen ditu lehenengoak adibidez eta *La Hora Chanante*-ren kapitulu batzuk edota `Nuevos Comicos` programako monologoak bigarrenak.

Goian aipatutako enpresek ez bezala, dokumentalek ikusleria hesitu egiten dutela esaten da. Hala ere, ez duzue berdina pentsatuko, seguru, hurrengo datua jakinda: Biography Channel eta History Channelek `Zure erako telebista` bat zabaldu berri dute beraien webgunean eta edukiengandik euro bat eta bost euro bitartean eskatzen dizkigute (jakituriaren transmisioa ere ordaindu egin behar?).



‘Sin tetas no hay Paraíso’-ren estreinua telebistan emititu baino lehen, internetetik ikusi ahal izan zen.

Aurretik, Espainian ez zen honelakorik egin eta ikusleek, telesaila Internetetik ikusteko diru apur bat ordaindu behar izan zuten.

▪ Hemen da etorkizuna

<<Egun, ikastolatik heldu bezain pronto, ordenagailuaren aurrean jartzen dira gazteak. Afaltzerakoan, azkar batean irensten dituzte jakiak. Hortzak garbituta, ordenagailuaren aurrera bueltatzen dira berriro ere umeak>>. Hauxe da, egunez egun, gurasoek beraien seme-alabekin etxean izaten duten kalbarioa eta panorama. <<Inork maneiatzen ez dakien aparailuarekin, logelan sartu dira eta amona, ama eta aita egongelako telebistaren aurrean geratu dira, bakarrik>>.

Nire baieztapena froga dezakeen estatistika zientifikorik ezagutzen ez badut ere, hemendik hamar edo hogeitau urtera, Internetek hutsitu dituen saloiak beteta egongo direla aurreikusten dut. Ez naiz ausartzen Internetek antisozial bihurtu gaituela esaten baina denborarekin, sareak sortu duen egoera sareak berak suntsituko duela uste dut.

Aurrekontu kaxkarrekin egindako programazioa, leloentzako pentsatuta dirudien tele-errealitatea, behin eta berriz errepikatuak diren film eta telesailak (errepikatu eta denboraldien ordena errespetatu ez), publizitate itogarria, kreatibitate eta talentu falta etab luze bat. Askok eta asko dira alde aurretik programatutako telebistaren garaia bukatzeaz dagoela aurreratzen diguten faktoreak.

Busti egingo naiz busti (ez ordea, gehiegi) . Egia da bai, programazioak gauza onak dituela, baina telebistaren kontzeptua bera, orain dela hamarkada askotatik ezagutzen dugun modura, desagertzera kondenatuta dago.

Gauzatxo bat aitortu behar dizuet. Pertsonalki, on onak ez baldin badira behintzat, ez ditut telesailak telebistan ikusten (horretarako, Series Yonkis eta beste hainbat webgune ditugu). Eta ez dut egiten ikus-entzunezkoen kontra doan gaizkile bat naizelako (zerbaitengandik daukat Lurreko Telebista Digitala eta ukitu ere egiten ez dudan IMAGENIO), aurretiazko abisurik barik telesailok telebistetatik kentzen dituztelako baino.

Gogoratzen *Lost*-en azken kapitulua emititzean Cuatrok izan zuen hanka-sartzeaz? Barkaezina izan zen jarraitzaileentzat benetan. Hara hortxe ordenagailuaren pantailatik ez urruntzeko beste arrazoietakoa bat. Antzeko zerbait gertatzen zait pelikulekin (birfrijituak edota bideoklubetan alokatuak ez diren filmak ikusteko, nahiago sarea).

Hala ere, badira telebista tradizionala ikusten uzteko pisuzkoagoak diren kausak. Ea, nori gustatzen zaio, adibidez, publizitate amaigabea irenstea? (ez gaude babestuta, Imagenioko Discovery Channel, Fox eta beste kateak ere gero eta iragarki gehiago eskaintzen hasi dira eta). Bi edo hiru iragarki ikustea gauza bat da baina ez, Tele5ek, Cuatrok edota La Sextak anuntzioak iragartzen ematen dituzten 15 minutuak jasatea.

Beste alde batetik, eta programa batzuen kalitatea izugarri jaitsi dela kontuan hartuta, eguneko emisioa ikusi beharrean, hoberena biharamunari itxarotea da eta momenturik onenak Youtuben edota telebista kateen 'Zure erako telebista' delakoetan ikustea.

Sareen sarea lur- planetako biztanleen errutinak aldatzen hasi zenetik, Internet eta telebistaren arteko integrazioa lortzea izan da konpainia teknologikoen obsesioa eta helburua. Orain, banda zabalerari esker, erronkei aurre egiteko baliabideak gertuago dirudite.



Internet egongelako aparailuetara eraman nahi da, eta horren harira, onlineko telebista izango dena aurkeztu zuen Googlek maiatzean (ideia hau ez da berria, ez du Googlek patentatu ezta planteatu, baina aurkezpena munduko bilatzaile garrantzitsuenak egin zuenez...).

Googlek indarra lortu aurretik, enpresa ugari saiatu ziren utopia hori errealitatean gauzatzeko. Skype zerbitzuaren sortzaileek, esaterako, Joost TV plataforma garatu zuten baina edukien faltagatik ez zuten esperotako audientziarik izan eta merkatutik kendu zuten.



Adituen ustez, merkatu mota hau jaiotzeaz dago eta pazientzia behar da oraindik, inflexio puntu bat. Alabaina, betiko telebista – etxeak mesfidati daude, goganbehartsu Internetek kompetentzia egingo diela uste baitute. Usteak erdi ustel, ikerketa batzuen arabera, aparailu hauen kontsumoa itxaropentsua da eta jendeak laster erakutsiko du hauenganako interesa.

‘Zure erako` onlineko telebistak (erdarazko *Televisión a la carta* deitutakoak) errealitate dira eta guregana heltzeko azkenengo bultzadaxoa eman behar zaie.

XBMC, Boxee, Plex, ADNstream edota Telebision bezalako plataformak gogotsu ari dira lanean, 2011. urterako erabiltzaileon nahietara egokitutako lehenengo telebista modernoak salgai jarri nahi dituzte.

Uste denez, garai berrietara egokitutako telebistek desabantailak baino onura gehiago ekarriko dizkigute:

✓ *Erabiltzaileen ekintza eta lehentasunen egokitzapena*

Atarietako DVRak bailitza funtzionatu dute eta “network” izaera daukate.


Azken finean, kontsumitzaileak dira ikusi nahi dutena erabakitzen dutenak eta baita, geroago ikusiko duten horren sortzaile (gehien ikusitakoek informazioa ematen die kanaleko edukiak antolatzen dituen webmasterrari) .

✓ *Komunitatea eta parte- hartzea (Sozializazioa)*

2.0 unibertsoarekin bat, jendearen parte hartzeak berebiziko garrantzia izango du.

Katearen irudiarekin zerikusia daukaten komunitateak sortu ahalko dituzte nabigatzaileek, baina ez hori bakarrik. Foroak eta txata izango dira hemen nagusi eta jendeak Facebook, Tuenti edota Windows Live sare sozialak espazio bakar batean batu ditzuten.

F. Sierrak nabarmentzen duenez, lagunekin txateatzen gauden bitartean ikusiko dugu internetetik telebista.



Gure esku, aukera anitzak dauzkagu. Edukia gainerako erabiltzaileen artean barreiatzea eta iritzia emateko aukera horietako bi baino ez dira

✓ *Feedback-a*

Taldekako interaktibotasunean aritzea izango du norbanakoak. Horrela, bideoak beraien artean konpartitzea izango dute erabiltzaileek adibidez.

✓ *Kate guztiak sare komunean (Hulu, Kangaroo, zatoo...)*

Enpresek, edukiaren nolakotasunaren arabera jasoko dituzte etekinak eta gaur ezagutzen dugun audientzia existituko ez denez, ez da hedabideen artean kompetentziarik egongo. Honela, banaketa kontzentratu egingo da eta trafikoa irabaziko dute webguneek .

Pertsonalki, Interneta eta telebista bateratuta izango dituen tramankulu bat imajinatzen dut nire etxean. Dena dela, ez dut uste aldaketa berehalakoa izango denik (telebista tradizionalako audientzia apurka- apurka migratuko da).

Krisi garaian gaude eta inbertsio guztiek pena merezi dute. Hori dela eta, ikus-entzunezko produktoreentzako onuragarria izango den sektorearen berrantolaketa iragartzen dut.

Lerro batzuk gorago, onlineko telebista, telebista tradizionala baino gehiago ikusten dudala esan dut, eta dirudienez ez naiz bakarra. Beste punturen batetan aurkeztu dudana The Diffusion Group-en arabera, 2008tik 2009ra % 52 hasi zen zen onlineko bideoak Interneten ikusteko joera. Bada, beraz, telebista modu berriek harrera ona izango dutela ziurtatzen duen daturik.

Interneten etorkizuna, jaun- andereak, online dago eta zuon erakoa izango da. Ez dago zalantzarik. Orduz askatasunean, kalitatean eta, programazio aniztasunean irabazi dugu. Berrito ere, telebistaren kontrola gure esku geratuko da azkenean.

ONDORIO TEORIKOA

Egunez egun, gero eta argiago dago teknologia berriek merkatua aldatu dezaketela. Telebistaren kasuan, bederen, begi-bistakoa da haren eboluzioak kontsumoan sortu duen iraultza.

Edonoiz eta edonon, nahi dugunean ikusgai, mundu mailako telebista desberdinen saioak- osorik edo piezaka- aurki ditzakegu sarean, eta hori erreboluzioaren hasiera besterik ez da.

Orain, streaming bitartez ikusi daiteke telebista, baina diotenez, hurrengo urteetan etxeko telebistetatik bertatik konektatu ahalko gara Internetera. Hau horrela izan dadin, Apple eta Sony enpresak adibidez, lehen makinak prestatzen dihardute lanean, eta aurreikusten dutenez 2011.urterako jarriko dituzte jendearentzako eskuragarri. Antza, datorren urtetik aurrera salgai egongo diren telebista berri horiek, besteak beste, Google TV bezalako aplikazioak izango dituzte instalatuta eta telebistan betiko saioak ikusteaz gainera, arratoi eta teklatuaren beharrianik gabe, internetetik nabigatzea egongo da.

Garapenean pentsatzean, askori aberastasuna etortzen zaio burura. Onlineko telebistari esker diru asko lortu dezakegu, baina nik gutxituen tresna bezala baino ez dut ikusten. Mundu honetan, batzuei ez zaie hitzik ematen eta kolektibo txiroaren ahotsa hedatu dadin, interesgarria ikusten dut gizarte hauek Interneteko telebistei esker komunikatu daitezela. Minoriek, behinik behin, Youtube eta Vimeo bezalako erremintak dituzte eta programazio jarraitua ematen ez badute ere, gustuko duten informazioa ikusi dezakete.

Nabigatzerakoan uzten dugun dirutza ikusita, aparatu hauen balio kostuen beldur naiz. Begira; hilean Internet zerbitzua alokatzea ez da doakoa izaten eta Lurreko Sare Digitala barneratua daukaten telebista berriak ez dira, ezta, batere merkeak. Amaraunetik telebista ikustea gauza bat da, baina internet izango lukeen telebista bat, krisi garaian, ez dut bideragarria ikusten. Gainera, jendeak ikus-entzunezko produktuak ikusten dituenean ez die emisio euskarriek garrantzirik ematen eta herri honetako interneten erabilera ikusita, nik Internet gehiago hedatu arte itxarongo nuke (16-34 urte bitartekoa da kontsumitzaileen adin tartea eta populazio jakin batengana iritsi dadila geratzen da oraindik).

Online dauden ikus-entzunezkoak ikusteko, bestalde, arretaz zaindu beharko dugu Interneten abiadura. Telefonica, Euskaltel eta antzekoek banda zabaleraren erabilera gomendatzen dute, baina Internet daukaten gehiengoaren konexioa benetan kaxkarra da.

Etenaldirik eta jauzirik gabe, zuzenean irudiak jasotzeko ezinbestekoa da gutxienez, ADSL konexioa izatea; honela ez bada, telebista konbentzionalena baino okerragoa izango da kalitatea bestela. Etorkizunean ordea, Internet bidezko kateak ederki garaturik iritsiko zaizkigu seguru; erabiltzaileok, ordutegiari lotuta egoteko premiarik eduki gabe, mundu zabaleko emisio anitz hautatu ahalko ditugu.

Feedbackaren kulturari bizi gara egun eta jendeak berebiziko garrantzia ematen dio parte hartzeari. Telebista konbentzionalak, hala ere, ez dituzte interakzioak onartu orain arte eta ingeniari, programatzaileek eta Interneten lan egiten duten gainerako

profesionalek bultzada bat eman beharko lioke honi (jendeak aparailu modernoetan dirutza gastatu dezala nahi bada behintzat).

Nire aburuz, eduki anitzak ikusteko aukerez gain, aipatutako interakzio hau, onlineko telebistaren bereizgarri eta indar erakargarria izan behar da.

Digitalizioak eta multimediak ekarriko dituen aldaketa hauek, programazioa ere baldintzatu egingo dute.

Hemendik aurrera, parrila ez da audientziaren menpe egongo eta errentagarritasuna webguneetan egindako "click" guztien arabera izango da (etorkizunean publizitatea web zerbitzuetara bideratua egongo da).

Era berean, edukien programatzaile bihurtuko da kazetaria eta barietatea nahiz kalitatea eskainita, webguneak ahalik eta trafikiko gehien izan dezan saiatu beharko da. Honela, ikasketak izan edo ez, profesionaltasuna jarriko du langileak agerian.

Bideoak grabatuta edota argazkiak aterata, internetera igo beharko ditu langileak. Aipatu edukiak webgunean jarrita, jendearekin partekatzea izango du eta sormena erabiliz gero, mundu osoko erabiltzaileek egindako lana txalotu ahal izango dute.

EHUko Edorta Arana irakasleak, Valentziako CONTD topaketen hirugarren edizioan, programatzaileek "katearen katalogoa" sortzen dutela aipatu zuen.

Hain zuzen, kontsumo ez linealaren ugalketak eta edukien aukeraketa aleatorioak kanalaren marka ahultzen duenez, programatzaile hauek dira, preseski, katearen transmisore nagusi eta indartzaileak.

Ikus-entzunezkoekin lan egiten dutenek, haien lana anonimoa izan dadila nahi ez badute, kanaleko esparru guztiak landu beharko lituzkete eta erabiltzaileak kanalean zehar ez galtzeko, nabigazioa erraztu.

Ez dut zalantzan jarriko telebistaren etorkizuna sarean ez dagoenik. Hori esaten dute, behintzat, Interneteko merkatuan aditu eta agintzaile direnek. Nik, ordea, ez dut imajinatzen azken hauek iragartzen duten panorama.

Hemendik urte batzuetara, irriti eta telebistako eduki guztia berriro ere telebista - pantailetara bueltatuko dela pentsatu nahi dut eta ordenagailua, lan tresna soil bat izatera itzuliko dela. Askoz jota, zuzenekoak transmititzen ikusten dut Interneta edo eta edukien biltegi bat bailitzan funtzionamenduan. Telebistak, aldiz, erreportajegintzarekin lotua jarraituko duela esaten ausartzen naiz.

Era horretan gertatzen bada, pantaila bakar batekin, informazioa modu errazago batean lortzea izango dugu, beti entretenimenduaz uztartuta.

Alabaina, merkatuaren eboluzioa ezagutu behar dugu lehenengo eta Telefonikako Imageniok, Jazztelen Jazzteliak edota Ya.com-en telebista zerbitzuen Internetak porrot egin zuela gogoratu..

Esanak esan, jakitunek azpimarratzen dutenez, telebistak sarean zein norabide izango duen ez dago oso argi oraindik orain. Dena asmatzeko dago eta adituak, ikerkuntza prozesu batean murgilduta egongo dira, behinik - behin, jendearen beharrianei erantzungo dien 'onlineko telebista' estandar eta duin bat kaleratu arte.

II. ATALA: TEORIA, PRAKTIKARA APLIKATUA

EITB

ETA HONEN

ONLINEKO TELEBISTA



Argazkia: ETB

Sarrera praktikoa

Konturatu gabe etorkizuna heldu zaie eta, merkatuaren eskaera berriei erantzuten hasi dira hedabideak. Ez da gauza txarra, eboluzionatu ezean, jakin badakite atzean geratu daitezkeela.

Telebista analogikoaren garaia bukatuta, emisio digitalen aroan sartu gara bete- betean. Orain, enpresak teknologia berriak garatzen dihardute eta interneteko erabiltzaileek bien bitartean, sarean gero eta pauso garrantzitsuagoak eman nahi dituzte. Blogak, podcast-ak eta web-ak sortuta, nabigatzaileek esperientzia berriak sentitu gura dituzte. Hauek asebetetzea, baina, gero eta zailagoa da. Eta ez da gutxiagorako, internautak gero eta zorrotzago bilakatzen ari dira.

Globalizazioak komunikabideen ugalketa ekarri du eta beste guztien gainetik nabarmentzea erraza ez denez (ezinezkoa ez esateagatik), bere irudia sendotu eta ezagutzera eman behar du hedabide bakoitzak. Horretarako, komunikabide multimedia eta digitalek era askotako komunikazio- inguruneak sortu ditzakete eta baita neurrian neurriko komunikazio dinamikak bultzatu ere.

Eitb.com dugu gurean korrante berrien lekukoa eta adierazlea. Euskal Irrati Telebistaren erreferentzia eta baliokide digitala da, bi urteko bizitzan, interaktibotasuna, bat-batekotasuna eta pertsonalizazioa erabiliz, telebista publikoaren eduki guztiak bildu dituena. Bertako langileek, audioak, argazkiak eta bideoak igotzen dituzte egunez egun webgunera eta punta- puntako sistemak barneratuta, bere eskaintza zeharo hobetu du azkenaldian gainera.

Streaming bidezko transmisioei esker, kate handien parean jarri da, baina oraindik hainbat gauza geratzen zaizkio abian jartzeko. Ekainetik aurrera erronka berri bati egin beharko dio aurre: udan, onlineko telebista katea izan beharko du sarean emisioan.

Euskal Irrati Telebistaren WebTVa garatzeke zegoenean haren arduradunekin batzartzeko aukera izan nuen EITBren Bilboko egoitzan. Proiektua garatuta dagoen honetan beste itxura bat hartzen diot hari. Honi buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak hurrengo orri hauek irakurri ditzala edo <http://www.eitb.tv/eu/> webgunean bere konklusioak atera ditzala bestela.



Katearen ikus-entzunezkoak WebTV batean txertatuta joango dira laster (dagoeneko WebTVan integratuta daude baina haren emisioak BETA formatuan doaz oraindikan). Gaur egun arte, baina, nolakoa izan da audio zein bideo edukiei eman izan zaien erabilera eta nolakoa haien tratamendua? Eta garrantzitsuagoa dena, nola antolatu dituzte eitb.com-eko langileek?

1. Bideoek eskaintzen dizkiguten aukerak

Ezin dugu ukatu Euskal irrati Telebista gero eta audiobisualagoa bilakatzen ari dela. Argazkiek, bideoek eta soinuek protagonismo gehiago daukate eta honek zeharo indartu ditu hedabidearen irrati- telebistak.



GAIEN ARABERAKO KOKAPENA

Ia hiru urte igaro dira eitb.com webgunea zabaldu zutenetik (honen aurrekoa eitb24 deitzen zen) eta egia esateko, handik ona nabarmen hobetu dute atariaren eskaintza. Lehenengoetan, anabasa zen errege eta aurkitu genezakeen informazio mordoak erabiltzaileen begia galtzen zuten. Orain, aldiz, ordenatuagoa dago edukia eta sarean errazago mugitu gaitezke.

Hasierako urteetan, inolako logikarik gabe txertatzen zituzten audio eta bideoak sarean. Egun, ostera, justifikatuta dago hauen presentzia eta orduz ordu aldatu egiten dituzte (hona helduta, entzutezkoen presentzia ikus-entzunezkoena baino askozaz txikiagoa dela salatu behar dut)

Azkenaldian nagusitu den joera da hemengoa. Albistearekin erlazionatutako edukiak gehitzen dira eta hauek informazio osagarria ematen dezakete.

Bizkaiko Bertsolari

Mende erdi txapelketan



Balendin Enbeitak jantzi zuen lehen txapela duela 50 urte. Joxe Alberdi, Asensi Bidaurrezaga, Eusebio Zubiaga, Kastresana, eta Polentzi Zarraga izan zituen lehiakide.


[\(Gehiago irakurri\)](#)

Albistegietatik hartutako bideoak izaten dira ugarien. Aurrekoei entretenimenduzko bideoek (Vaya semanitako sketch-ak, ikusmira sortzen dutenak, famatuei buruzkoak...) jarraitzen diete eta azkenik, kiroltakoak ditugu (futbol jokalariek golak, kirolarien adierazpenak etab). Hala, ikus-entzunezko aipagarrienak "home nagusian" kokatzen dituzte eta gaiaren arabera, kanal ezberdinetan. Bideoen bat aurkitzen ez badu, erabiltzaileak "Bideoak" menura joatea izango du, honela ikus-entzunezkoa bertan aurkitzeko.

Azkenengo 6 bideoak



Eguneko bideo esanguratsuenak



Haiekin erlazioatutako bideoak izanez gero, gai zerrenda desberdinetan kokatzen dituzte

SARE SOZIALAK ETA PARTE HARTZEA

Albiste idatzien eta bideoen titularren azpian, Facebooken "Ezagutzera eman" Twitterren "Retweet" eta Tuentiren "Partekatu" botoiak aurkituko ditugu. Hauen bitartez, edukia gustuko dugun edo ez jakinarazi dezakegu eta sare sozialetan ditugun kontaktuei edukiaren berri eman ahal diegu. Besterik "iruzkina egin" idatziari zakatuta gure iritzia plazaratu dezakegu.

The screenshot shows a news article on the website 'e.tb.com'. At the top, there are social media sharing buttons for Facebook ('Ezagutzera eman' with a count of 3), Twitter ('retweet' with a count of 0), and Tuenti ('Partekatu'). To the right, there is a red button labeled 'Iruzkina egin'. The article title is 'ZER EGITEN DUTE HOLLYWOODEKO IZARREK HAIN EDER MANTENTZEKO?' and the author is 'L.Z. - 2010/08/17 | Eneakzioa | Iruzkina egin'. The article text discusses beauty treatments for Hollywood stars and mentions 'Oxigeno terapia'. Below the article, there are three images of women's faces. At the bottom right, there is a section titled 'Azaleko' with a large number '26' and the text 'Ares: Badirudi interesa dagoes'. The word 'EDUKIE' is written in red at the bottom right of the page.

EDUKIE
N

JEITSIERA

Erraz- erraz, ikusitakoetatik gehien gustatu zaizkigunak deskargatu ditzakegu gure ordenagailuetara. Jaitsieraren denbora bideoaren tamainaren araberakoa izaten da baina normalean ez ditu 30 segundoak gainditzen. Hori bai, artxiboa MP4 (FLVren soinu-baliokidea) formatuan bakarrik gureganatu dezakegu.

Bideo batzuen lizentziek ezinezko egiten dute gu hauekin olgetan aritzearena. Musika bideoklipak eta telesailak kasu, ikusi bai baina deskargatu ezin ditzakegu deskargatu.

Aplikazioaren akatsa izango da seguruenik, baina zerbait jeisteko MP4 aukerari eman behar diogu



YOUTUBE PLATAFORMAREN ESKU SARTZEA

Efektu biral bat sortzeko edo, 2008. urtean Carlos Soberaren 'Date el bote'ko hiruzpalau bideo igo zituen EITBk Youtube- ra. Barregarriak zirelakoan, sekulako arrakasta izan zuten eta audientzi berri bat agertu zen: sarekoa eta internazionala zena.

Sarearen potentziala ikusita, bide horretan EITBk kanal berri bat ireki zuen Youtuben (2009ko martxoaren 11 zen egun hura).

Google-len zerbitzuaren baliagarritasuna eztabaidagarria da oraindik, ordea. Youtuberen bitartez Euskal Telebistaren irudia promozionatu daiteke, baina audientziari begira ez du webgunean trafikorik sortzen.

EITBk politika zorrotza du bere edukiei dagokionez. Youtuben bere edukiak aurkitzen baditu, adibidez, plataformatik ezabatu dezala eskatzen dio Google enpresakoei.

eitbcom

Editar suscripción

Suprimir amigo |

Bloquear usuario |

Enviar mensaje

Perfil

Nombre:	eitb.com
Reproducciones del canal:	97094
Reproducciones totales de vídeos subidos:	3467944
Antigüedad:	11 de marzo de 2009
Última fecha de visita:	hace 4 horas
Suscriptores:	1882
Sitio web:	http://www.eitb.com

Youtuben kontua ireki zutenetik, 300 bideo inguru eskegi dituzte eitb.com-eko multimedia arloko langileek.

Bideo bat igotzen dute eguneko, normalean esanguratsuen izaten dena.

2. Onlineko aplikazioaren ezaugarriak

eitb.tv aplikazioaren aurkezpena 2011ko maiatzaren 18an



“Zure erako telebista”, “eskabidezko telebista” edo “telebista zure erara”.

Hasiera batean, hiru horietako bat izan zen EITB taldearen webguneko telebistak eramango zuen izena. Aurtengo Bilbao Web Summit nazioarteko kongresuan, baina, EITBren onlineko telebista "[eitb nahieran](#)" gaztelaniazko “a la carta” izenarekin bataiatu dutela jakin izan dute biltzarrera hurbildu direnek.

Plataforma berri honek orain arte euskaraz egindako ikus-entzunezko datu-base handiena eskainiko dio erabiltzaileari eta ekainaren 14tik aurrera ofizialki eskuragarri egongo da sarean. Horrela, euskarri horrek "euskal kultura munduan zehar hedatzeko ere balioko du".

EITBko irratietako audioen eta 3 telebistetako bideoen biltegia izango da eta euskaraz, erdaraz, ingelesez eta frantsesez aurkeztuko dizkigu edukiok.

Onlineko kanal hau hobeto ulertu dezazuen, haren sustatzaileekin bilduta, beronen sekretuak azalduko dizkizuet.

▪ **Izaera bereizgarria:**

Honen ardura eraman duten pertsonekin ez bada behintzat, WebTVaren aurkezpena egin bitartean, eitb.com-eko zuzendari den Edurne Ormazabalek ez dio inori proiektuaren berri eman.

Egunkari eta paperen artean, bere bulegoan hartu nau. Aste gutxi batzuk geratzen dira Donostiako Zinemaldia hasteko eta prestaketek lanpetuta daukate.

Aulki batean jesarri ondoren, ikerketa honen zertzeladak eman dizkiot. Puntuz puntu, <<eitb.com-ek abian jarri duen apustu handienetako bat>>, biluztuko dugu.



Edurne Ormazabal solasaldiaren momentuetako batean

Aitortu didanez, erregistroan sartuta egunak eta egunak eman dituzte. Ez da erraza izan WebTVaren izena zehaztea (lau ziren aukera edo izen posibleak eta eitb.tv domeinuaren aldekoa zen bera).

Nahierako` telebista mota berri honek zigilu propioa izango duela dio. Teknikoki, organo independente bat bailitzan eginga izan da (eitb.com-etik sartzeko estekak izango baditu ere, erabiltzaileak beste helbide batera joan beharko du; eitb.tv-ra) eta azken finean, etxearen produktu guztiak- EITBko irratietako audio zein telebistetako bideoak- euskarri baten bilduko ditu. Produktu hauek izango dira gero, beste kate batzueetako edukietatik berezituko dutenak.

Entretenimendua eskaintzea izango da nagusiki onlineko kanal honen behin behineko helburua, << ikus-entzuleek dibertitzeko aukera anitzak izan ditzatela>>.

Publikoak, besteak beste, urtez urteko bilaketak egin ahal izango ditu eta baita gaien araberakoak ere bai. Oraindik ez baina hemendik bi urtera (eta meta-datuei esker) edo, bilatzaile inteligente bat txertatuko diote sistemari eta honek eszena zehatzak erakutsiko dizkie telebista-kontsumitzaileei.

Nabigazioa erraza izango da, antza, eta erabiltzaileak ez du lau hizkuntzetako batean ere komunikazio arazorik aurkituko.

Eduki ez lineala eskainiko du eta interaktibitatea presente egongo da, gainera. .

Onlineko telebistak, funtsean, EITB Taldeko plataforma ezberdinak bateratzeko pausu berria emango du; horrela, marka irudia sendotuko da eta zerbitzu publiko bezala hedabideak izan behar duen izaera mantenduko da baita.

Ekimen berri horrekin, ikusleek, entzuleek eta baita irakurleek ere, "aztertze eta gozatzeko milaka ordu eduki izango dituzte".

eitb.tv –ren beta formatuan hauxe irakur daiteke

eitb nahieran ikusteko oharra itxi

Ongi etorri eitb nahieran atarira!

Ekimen berritzailea
 EITB taldeko telebista saio eta irratsaio gehienak ikusi eta entzuteko aukera izango duzue hemen. Ekimen berritzaile eta erakargarria aurkezten dizuegu, ikus-entzunezko esperientzia ezin hobea. Pantaila osoa hartzen duen bisorea ardatz hartuta, interfaze berri honetan zuzeneko emankizunak, telebistako saioak eta irratsaio gehienek podcast-ak izango dituzue eskura.

Beta fasea
 eitb nahieran ataria beta fasean dago eta proba garai honek hobekuntzak egiten lagunduko digu. eitbnahieran@eitb.com helbide elektronikoan iradokizunak egitera gonbidatzen zaituztegu.

■ Amets baten egia:

Youtube-ren garapenak eta geroago ikusiko ditugun kanal batzuen sorrerak eragin zion Iñako Gurrutxagari onlineko telebisten abentura honetan itsasoratzeko grina. Imajinazioa 2005. urtean jarri zitzaion martxan. Hala ere, une batetik bestera komunikazio zerbitzu berriek hartu dezaketzen norabidea zehatza ez da eta, merkatua garatu arte itxaron behar izan du.



Iñako Gurrutxaga

EITBren webguneko katea definitu dezala eskatuta, <<munduarentzako zabalik egongo den difusio amaigabea>> dela esaten digu Iñako Gurrutxagak. Honela, EITBk hautsa aterako die bere produkzio propioei eta hedabidearen sorreratik ona emitituko eduki guztiak jarriko ditu jendearentzako eskuragarri.

Hasiera batean, 2010eko irailerako prestatua izan nahi zuten aplikazioa baina udak abendurarte atzeratu zuen honen gauzapena eta udazkenak 2011. urtearen lehenengo se

Iñako bera da proiektu honen arduraduna eta WebTVa garatu aldera, ingeniariak eta informatikoak zenbatu gabe, sei kazetari ibiliko dira lanean. Hemendik aurrera, ukondo ukondo, hedabidearen ikus-entzunezko ondarea berreskuratzeko eta eguneko programazioa osatzeko, dokumentazio zerbitzuarekin batera egin beharko dute lan.

‘Nahierako telebistak’ 9.000 GBetik gorako edukia dauka momentuz eta pixkanaka-pixkanaka bolumen hori handiagotzen joango da. EITBk jabetzan dauzkan edukia (telesailak, programak, filmeak etab) egunean bertan igoko dituzte eta betirako egongo dira han gordeta. Kanpo produkzioak (kanpoko telefilmak edota marrazki bizidunak), berriz, astebetzez eskainiko dituzte onlineko telebistan.

■ Diseinu erabakigarria (eta erakargarria)

Diseinu egokia lortu arte EITBkoek prototipo ugari prestatu zituzten.

1. BERTSIOA

ZORRAQUINO

The screenshot displays the EITB website interface. At the top, there is a navigation bar with 'Telesión' and 'Radio' tabs, and a search bar. Below this, a large banner features a couple embracing, with the text 'Zinemaldia 2010' and 'Javier Bardem y Julia Roberts revolucionan el festival de San Sebastián'. To the right, a 'EN DIRECTO' section lists live programs like 'Zinemaldia' and 'Robin Food'. The main content area is a grid of program thumbnails, including 'Robin Food', 'teleberri', 'EL CONQUISTADOR DEL ACONCAGUA', 'Vaya Semanita', and 'Ciclismo'. A sidebar on the left lists various categories like 'Destacados', 'Más Recientes', and 'Deportes'. At the bottom, there are navigation icons for Etb1, Etb2, Etb3, Canal Vasco, and EtbSat, along with a footer containing contact information and social media links.



2. BERTSIOA; ONA

The screenshot shows the EITB website interface. At the top left, the logo 'eitb.com' is visible along with language options 'ES' and 'EU'. A search bar contains the text 'Eitb nahieran-en bilatu' and a 'Bilatu' button. On the left, there is a navigation menu with 'TB' and 'Irratia' tabs. The 'TB' menu is expanded, showing categories like 'Zuzenean', 'Saioak A-Z', 'Saio motak', 'Azkenak', 'Ikusienak', 'Albistegiak', 'EITB artxiboa', and 'Azken 7 egunak'. A sub-menu is open under 'Saio motak', listing various program types such as 'Albistegiak', 'Saioak', 'Kultura', 'Dibulgazioa', 'Dokumentalak', 'Kirolak', 'Haurrak', 'Gastronomia', 'Umorea', 'Musika', 'Filmak', and 'Telesailak'. The 'Telesailak' option is highlighted. The main content area features a large video player showing a woman in a green top. To the right, a 'Programazioa' (Schedule) section lists programs with their start times: 21:49 Eguraldia, 21:54 Kerman Mintzalag, 22:00 Goenkale, 23:05 Plato 2.0, 00:20 Azpimarra, 00:55 Arratsaldero, 07:05 Teknopolis, 07:35 Azpimarra, 08:05 Forum, and 08:30 Egun On Euskadi. Below the video player, a row of thumbnails for other programs is displayed, including 'GOENKALE_KO', 'Mendian gora...', 'Tirikitauki, kolpeka', 'Hiruak bat', 'Maitasun hitzak', 'Tatuajea berriz ere', 'Ongi etorri... ala ez?', and 'Esnaera berria'.

[EITBko saioak nonahi eta noiznahi jarraitzeko aukera ematen du modu erakargarri eta erraz batean]

This screenshot shows the EITB website interface with a video player in the foreground. The video player displays a scene from a program, with a large play button overlay in the center. The video player controls are visible at the bottom, including a progress bar and volume controls. The background shows the same navigation menu and program schedule as the previous screenshot. The video player has a purple banner at the bottom with the text 'SI QUIERES VEN'. The EITB logo is visible in the top right corner of the video player area.

Argazkilaria: [sustatu](#) | Etiketak: [eitb.com](#) [telebista](#) [web](#) | Data: 2011-05-18 18:30:58


Nahierako telebistaren Android eta iPhone-rako aplikazioa garatuta daukate dagoeneko eta eitb.com-ekoek iPaderako aplikazio bat ere egitea dute helburu.

■ Beste eredu batzuetatik eratorria

Normala denez, gauza guztiek bere aurrekariak daukate eta eragileek merkatuan bilatzen dute inspirazioa. EITBkoak, besteak beste, modelo hauek aztertu dituzte.

- RTVEren *Televisión a la carta* :

Estatuko hedabide publikoa aitzindaria da bideoen sareko erabilerari dagokionez. Inongo publizitaterik gabe, telebistan emititua izan den eduki guztia igotzen du sarera. Eduki horrek desabantaila bat dauka ordea, 24 ordu igarota, programazio berria sartzeko, webgunetik kendu egiten dute zaharra.



- Kataluniako TVC-aren '3alacarta':


'Zure erako telebistaren' bertsio berriena da, 'Beta' formatuan 2010. urteko abuztuan kaleratua. Edukiak zuzenean edo On Demand ikusteko aukera plazaratzen digu eta ikaragarria da haren diseinua. EITBko WEBTVk honen antz gehien dauka (hala ere, oraindik asko geratzen zaio Kataluniakoaren mailara heltzeko).



TV3aren '3alacarta' telebistan, hedabidearen kate guztiak ikusi daitezke. Batzuetan emanaldiak ez dira eskuragarri egoten baina eskubide kontuengandiz izaten da hori.

- BBCren 'I player':

Europako WebTVen artean zaharretarikoa dugu. BBC katearen oondasuna du sarean jarria eta EITBk ere, dirudienez, hortik ikasi du. Ez dut uste gure telebista publikoaren kasuan horrelakorik txertatuko dutenik, baina I-Playerrari bideoak alokatzeko baliabide bat jarri diote.



■ Teknologia berria

Teknologia berriei bide egin nahi zaie eta EITBkoek aldaketak transformazioaren motor bihurtu nahi dituzte.

Teknologiaren eboluzioari dagokionez, Lontzo Sainzek eitb.com-eko Networking buruak, erratuta gaudela uste du. Haren ustez, merkatua ez dago guk uste bezain garatuta eta benetako aurrerapenak hurrengo 5 urteetan ezagutuko ditugu.



Lontzo Sainz

Lontzorentzat, EITBren WEBTVak kalitatezkoa, baliagarria, moldagarria, eraginkorra eta automatizatua barik pertsonalizatua izan behar du. Baldintza horiek beteko balira, helburu hauek lortu genitzake haren erabilpenaren bitartez:

- ✓ Era guztietako edukiak kontsultatu eta eskuragarri jartzea
- ✓ Interesen araberako edukien pertsonalizazioa
- ✓ Norbanakoek sortutako edukiei zabalkundea ematea

✓ Interaktibitatea agerian jartzea

Onlineko telebista jarriko du EITBk sarean, bai, baina Lontzo Sainzek gogoratzen digunez, edukiak internetera igota eta gaika sailkatuta, lan hori eskuz egin izan dure kazetariak orain arte



EITBren eitb.tv atariak streaming bidezko emisioak eskainiko ditu.

Burututako aldaketa guztiek ez dute eitb.com-en eraginik izango, onlineko web kateak bere funtzioa izango baitu eta independentea izango baita.

Bideoklipak, telesailak eta 2010eko abuztutik aurrera 'Gaur Egun' eta 'Teleberri' albistegiak, oso-osorik eitb.com atarian. Erabiltzeak, une oro, azken zazpi egunetako albistegiak dauzka eskuragarri. Gainera, **titularrak bakarrik edo **informatiboa osorik** ikusteko aukera dauka.**

▪ Audientzia modu berria

Joselu Blancoren arabera, etorkizun hurbil batean ikuslegoari ez zaio “audientzia” deituko (ez, edukiak Internetetik ikusten dituztenei behintzat). Berak *bisitari* edo *nabigatzaile* izena ematen die.

EITBko programazio buruaren iritziz, WEBTVak, pentsatzen denaren kontra, hedabidearen irudia indartu dezake eta telebista konbentzionaletan emititutakoak errepikatuko dituzte, errentagarria irten daiteke. Hala ere eskaini behar duen edukia ona izan behar da eta hori, edukia bera, euskarriaren gainetik jartzen du.

Marketing eta publizitate enpresek iragarkiak kontratatzeke beste modu batzuk asmatu behar dituzte. Egun, edukiek multimedia izaera daukate eta EITBren kasuan gertatzen den bezalaxe, euskarri bat baino gehiago duten hedabideentzako, interesgarria izango litzateke, publizitatea “pack” antzeko batetan saltzea.

Telebista tradizionalen izango zuen oihartzuna aurreikusteko, inon erakutsi aurretik, Mugaldekoak telesaila sarean jarri zuten ETB1ekoek.



ONDORIOAK, PRAKTIKARA APLIKATUTA

2011. urtearen bigarren zati honek berritasuna dakar.

Zortea lagun bada, ekainaren 14rako, WEBTV plataforma izango du Euskal Irrati Telebistak bere webgunean ´ofizialki` jarria.

Sistema hau berandu dator, ordea. Estatu mailako telebista kateek, orain dela bi- hiru urte kaleratu zuten euren. Lehenengo batean, 2009.ean merkaturatu nahi izan zuen EITBk berea, 2010eko irailean eta abenduan geroago. Data batean zein bestean, ez zen horrela izan. Orain, 2011ko uda hasi baino lehen ikusiko dugula diote.

Itzalaldi analogikoa aspaldi iritsi zitzaigun eta ez dut ulertzen EITBren onlineko telebistaren atzerapena. Diru faltagatik izango zen akaso edota plataformaren ezarrerak estrategia zehatz baten gabezia zeukalako bestela. Denbora guzti honetan, sekretismoa izan da nagusi eta proiektuan inplikaturik daudenekin oraintxe (justu justu, webtv-a merkaturatzeko egun gutxi besterik geratzen ez direnean) baino ezin izan dugu hitz-egin.

“Nahierako telebista` delakoari bizia emango dion lantaldea osatua dago behintzat eta Iñako Gurrutxagak esandakoagatik, denboraldi berrian egingo direnak zehaztuta daude.

Berandu edo arin webguneratuta ere , notizi ona da dudarik gabe. Abangoardian jarriko du gure telebista, ikus-entzunezkoak nahi ditugun eran aurkeztuko dizkigu eta modu interaktibo batean entretenituko gara, gainera. Hala ere, niretzat positiboena EITBren bideo-ondarea ikusteko emango digun aukera izango da. Hori eta onlineko telebistak lau hizkuntzatan – ingelesez, frantsesez, erdararaz eta euskaraz- funtzionatuko duela.

EITBren webguneak mundu mailako difusioa dauka eta hedabide autonomikoaren helburuetako bat euskara sustatzea denez, webtv honek aukera berriak zabaldu dakizkioke euskal hiztunen komunitateari (txat eta foroen bitartez elkarrekin harremanetan jarri, edukiekin berezko unibertso kultural, sozial eta komunikatibo bat eraiki etab).

Gizakiak milaka ahalbide eta aukera ditu eskuartean. EITBk 30 urte bete ditu eta oraintxe hasi du bere aireratze teknologikoa. WebTVa, seguru, hedabide autonomikoak hurrengo urteetan aterako dituen berrikuntzen zati txikiena baino ez dela izango.

BIBLIOGRAFIA

Idatzizkoak edo ahozkoak izan, lan hau egiteko ugari dira kontsultatu diren **informazio iturriak**. Dagozkien sailkapenean, honako erreferentzia hauek erabili ditut:

AHOZKO INFORMAZIOA

ELKARRIZKETAK

- Lontzo Sainz jauna, eitb.com atariko “Networking” burua
- Iñako Gurrutxaga jauna, ETB3ko eta eitb.com-eko entretenimendu arduraduna
- Joselu Blanco Rad jauna, EITBko programazio eta audientzia arduraduna
- Edurne Ormazabal anderea, eitb24 atariaren zuzendaria

HITZALDIAK

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak antolatutako Komunikaldien V. edizioan esandakoak.

PAPEREZKOA

LIBURUAK

*Gorka Palazioren “*Interneteko bideo eta telebistaren aro berriaz*”

*Zientzia eta Arteen Espainiako Akademiaren “[*La industria audiovisual en España, escenarios de un futuro digital*](#)”.

TXOSTENAK

[2010- 2013ko EITBren Estrategia Plana](#)

UPV/EHUko Edorta Arana irakasleak, 2010eko apirilean programazioari buruz Valentzian eskaini zuen hitzaldiaren laburpena.

INTERNET

Artikuluak: <http://teketen.com/2010/04/telebista-internet-telebista/> [sarean online, 2010eko abuztuaren 20an begiratua]

<http://witivi.com/mejores-paginas-ver-television-online> [sarean online, 2010eko irailaren 5ean begiratua]

<http://revista.consumer.es/web/eu/20080401/internet/72508.php> [sarean online, 2010eko irailaren 8an begiratua]

<http://blogs.deia.com/elaudimetro/2011/05/22/599/> [sarean online, 2011ko maiatzaren 30ean begiratua]

<http://sustatu.com/1305736925> [sarean online, 2011ko ekainaren 1ean begiratua]

<http://www.elcorreo.com/vizcaya/rc/20110602/tecnologia/coloca-espana>

<http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-06-01/037/002> [sarean online, 2011ko ekainaren 1ean begiratua]

Inkesta eta datuak:

AIMC (2009): 'El control de audiometría. Funciones y actividades'. Asociación para la investigación de Medios de Comunicación, www.aimc.es, 2009ko urria.

AIMC (2009): 'Resumen general EGM. Febrero a Noviembre de 2009'. Asociación para la investigación de Medios de Comunicación, www.aimc.es, 2009ko abendua.

Entziklopediak:

WIKIPEDIA http://es.wikipedia.org/wiki/Televisi%C3%B3n_por_Internet

***OHARRA(k):**

- Orrialde hauek Multimedia Komunikazioa UPV/EHU-EITB masterreko parte dira. 2009/2010 ikasturteko azkenengo memoria lana osatzen dute. Egin diren aldaketak geroagokoak dirak, 2011. urteko lehenengo seihilabetekoak hain zuten.

-Idatziaren lehenengo edo bigarren atalean sartuak izan diren irudiak, taulak edo bestelakoak berezko izaera daukate eta horiei eman zaien erabilera desio txarrik gabe egindakoa da (eitbko taulen kasuan, irrati-telebistako langileek emanikoak dira).

-Proiektu honek errealitatearekin izan ditzakeen antzekotasun guztiak ez dira kasualitatean fruitu besterik.

@2010/ 2011. Ibon Perez